

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzen dituzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoak diren baliabideak...

- **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Baliabide fisikoak: lokala, azokako postua, baserria, baratzea, beribil elektrikoa (motorrarekin edo gasolio berebilak erabiliz kutsadura sortuko genukeenez, baliabide ekologikoen alde egingo dugu), lan tresnak eta gure produktuak ekoizteko eta mantentzeko beharrezkoak diren produktuak, besteak beste, ongarriak eta haziak.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: haziak landatzeko gaitasun nabarmena, gertutasuna bezeroekin, produktuak zabaltzeko abilezia handia eta gure enpresako logistika kudeatzeko ahalmena.

Baliabide ekonomikoak: gure aurrezkiekin aterako genuke aurrera gure enpresa eta lortutako diruarekin, langileen soldatak eta gure baserria aurrera ateratzeko beharrezkoak diren baliabideen kostuak ordaintzeko.

